Andoaingo Udala

DIRUZAINTZA

KODEA: 2025AKN20015

EPE LUZEKO FINANTZA-ERAGIKETA BAT KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea 17.749.198,70 euroko epe luzeko finantza-eragiketa bat kontratatzea da, banku maileguaren bitartez. Eragiketa hori Andoaingo Udalaren 2025eko Aurrekontu Orokorrean jasotako zenbait inbertsiori lotutako finantziazioa izango da, hain zuzen ere, honako hauei egotzia:

1 1000.622.342.02.02 2025 Polikiroldegia: 13.949.198,70 euro
1 0200.622.153.40.01 2025 Zerbitzuen pabiloia: 3.800.000 euro

Itunduko den eragiketak finantza-zuhurtasuneko printzipioa beteko du, 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomía-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

Europako Batzordearen CPV kodea (Kontratuen Hiztegi Komuna):

66100000-0 Kreditua emateko zerbitzuak»

2. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratazioa dokumentu honetan xedatutakoaren arabera arautuko da, baita aplikatzekoak diren xedapenen arabera ere, honako araudi honetan oinarrituta:

- Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren (aurrerantzean TRLHL) 2., 48., 49., 50., 52., 53. eta 55. artikuluak. (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21., 22. eta 47.2 artikuluak (aurrerantzean, LBRL).

- Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

- Ebazpena, 2025eko urriaren 6koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, ebazpen honen 1. Eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1., 4. eta 10. artikuluak (lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)).

- 1978ko Espainiako Konstituzioaren 135.3 artikulua.

- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 14. artikulua (aurrerantzean, LOEPSF).
- 17/2012 Legea, abenduaren 27koa, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Azken hogeita hamaikagarren xedapena. Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu-, zerga- eta finantza-arloko premiazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Lege-Dekretua aldatzea.

Izaerari dagokionez, kontratu hau pribatua izango da.

Mailegu kontratuak berariaz daude SPKLren aplikazio eremutik kanpo, 10.artikuluan xedatutakoaren arabera.Kanpo utzitako kontratuak, negozioak eta harremanak beren arau berezien arabera arautuko dira, eta SPKLren printzipioak aplikatuko dira sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

SPKLren 1. artikuluan aldarrikatzen diren printzipio hauek bermatzeko, baldintza zehatzen eta behar teknikoen pleguak idatzi dira: "*….bermatu nahi da kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratuberdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla,..* "

Adjudikaziodunak bere eskaintzan sartu dituen zehaztapen edo baldintzek ere arautuko dute kontratua, baldin eta baldintza hauen eta aplikatu beharreko araudiaren aurkakoak ez badira, bereziki finantza-zuhurtasunaren printzipioa betetzeari dagokionez.

Azkenik, plegu hauetan aurreikusi gabekoari dagokionez, xedapen hauek aplikatuko dira: TRLHL, LBRL, SPKLren printzipioak eta 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

Eragiketaren zenbatekoa ikusita (17.749.198,70 euro), Osoko Bilkura izango da kontrataziorako eta dagokion espedientea tramitatzeko eskumena duen udal organoa TRLHLren 52.2 artikuluaren eta LBRLren 22.2.m) artikuluaren arabera, pilatutako zenbatekoak aurrekontuan aurreikusitako baliabide arrunten % 10 gainditzen duelako.

4. KREDITU-ERAGIKETAREN BALDITZAK

4.1- Eragiketaren zenbateko nominala

Kreditu-eragiketaren gehieneko zenbatekoa 17.749.198,70 eurokoa izango da.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Zenbateko hori zenbait finantza-erakunderi esleitu ahal izango zaie partzialki, betiere baldintza-agiri honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

Eskaintzak zenbateko hauetakoren batengatik edo guztiengatik aurkez daitezke:

8.874.599,35 euro
17.749.198,70 euro

4.2- Epea eta entregak

Kontratuaren iraupena 18 URTEKOA izango da, honako egitura honen arabera:

4.2.1- LEHENENGO ALDIAN **erabilera libreko eta amortizazio-gabealdia,** 3 URTE iraungo dituen epea egongo da, kontratua formalizatzen denetik hasita. Denbora horretan zehar, arau hauek aplikatuko dira:

Erabilera libreko eta gabealdiko epe horretan zehar, Udalak libreki egin ahalko ditu beharrezkotzat jotzen dituen funtsen erabilera guztiak, adjudikatutako gehieneko zenbatekora iritsi arte eta inolako mugarik gabe, baina Udalak ez du izango itundutako zenbatekoa osoa erabiltzeko konpromisorik.

Gabealdia amaituta, mailegua kontsolidatuko da, erabilitako zenbatekoarekin, eta bigarren amortizazio-aldia hasiko da. Hau da, lehenengo aldi horretan erabilitako zenbatekoa azkenean kontratatutakoa eta amortizatu beharreko hasierako kapitala izango da.

Horretarako baimena duten pertsonek (Alkatetza, Kontu-hartzailetza eta Diruzaintza) idatziz eta modu mankomunatuan eskatu eta sinatu ondoren erabiliko dira funtsak. Eskatutako zenbatekoa Udalak adierazitako kontu korronte operatiboan ordainduko da, eskaerak jaso eta gehienez ere 3 egun balioduneko epean.

Amortizazio-gabealdiko ordainketak honkoak izango dira;

- Erabilitako kapitalaren zatiagatik: Udalak eragiketaren interes-tasa aplikatzearen ondoriozko interesak ordainduko ditu, hiru hilean behin.

- Erabili gabeko kapitalari dagokionez: Ez da erabilgarritasun-ezaren komisiorik aplikatuko.

Amortizazio-gabealdiak irauten duen bitartean, Udalak aldi hori amaitzea eta bigarren amortizazio-aldiarekin hastea erabaki ahal izango du eta erakunde mailegu-emaileari jakinarazi beharko dio, 10 egun natural lehenago gutxienez.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

4.2.2- Amortizazio-gabealdi hori igaro ondoren, mailegatutako kapitala itzultzeko gehienez 15 URTEKO BIGARREN ALDI bat hasiko da, jarritako eta amortizatu gabeko zenbatekoaren gaineko amortizazio konstantea eta interesak biltzen dituzten kuotak ordainduz, hiru hilean behin.

Udalak amortizazio-gabealdia aldez aurretik amaitzeko ahalmena erabili badu, kontratuaren 18 URTEKO guztizko iraupenera arte geratzen den tartea iraungo du dirua itzultzeko bigarren aldiak.

Printzipalaren diru-sarrera, gabealdian zehar edo gabealdia amaitzean, kontu operatiboetan edo helburu horretarako irekitako kontu espezifikoetan egin ahalko da, Udalarentzat inolako gasturik sortu gabe. Esleitutako entitatean kontu operatibo edo espezifikorik ireki ez bada, ireki egingo da. Udalak egindako mota guztietako operazioen ondorioz kontu hauetan idatzi behar diren mugimendu eta idazpen guztiak, hala nola, transferentziak, eskualdaketak, txekeak igorri eta kobratu , itzulketak etab. edozein motatako banku komisio eta gastuetatik salbuetsita egongo dira.

Finantza-erakunde esleipendunak kontu honetara eta ireki daitezkeen beste batzuetara sarbidea emango dio Udalari, inolako kosturik gabe, bai eta aipatutako eragiketak Banka Elektronikoaren sistemaren bidez egiteko aukera ere, funtzionalitate horiek izanez gero.

4.3-Prezioa

Kontratuaren prezioa eskaintzan jasotzen den **interes-tasaren** araberakoa izango da. Lizitatzaileak proposatzen duen prezioak xedapen hau bete beharko du: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena

Erakunde mailegu-emaileak gutxienez 10 egun balioduneko aurrerapenarekin jakinaraziko ditu amortizazioaren eta interesen epemugak, bai eta horien zenbatekoak ere, diferentziala eta Euriborra banakatuta. Interesak eta amortizazioaren kuotak amaitutako hiruhilekoan likidatu eta ordainduko dira.

Eragiketa honi aplikatu beharreko interes-tasa dela-eta, **INTERES-TASA ALDAKORRA** bakarrik eskainiko da, eta Espainiako Bankuaren webgunean argitaratutako **3 hilabeterako Euriborra** hartuko da erreferentzia bakartzat. Euribor horren gainean, lizitatzaileek, nahi duten diferentziala eskainiko dute, bi hamartarretan, bai gehituz bai kenduz, gehienezko guztizko kostua kontuan hartuta.

Gehienezko kostua, guztira: Eragiketaren gehienezko kostu osoa ebazpen hau erreferentziatzat hartuta zehaztu da: Ebazpena, 2025ko urriaren 6koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, ebazpen honen 1. Eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

Gehienezko kostuaren baldintza lizitazio-prozesua irekitzen den unean zehaztuko da, lehiaketa publikoen kasuan; beraz, baldintzen plegu honetan adierazitako gehienezko kostua ez da aldatuko lizitazio-prozesuan zehar.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Eragiketa honen baldintzak kontuan hartuta, eragiketaren batez besteko bizitza 10,625 urtekoa da (127,50 hilabetekoa).

Era berean, Estatuaren finantzaketa-kostuaren gaineko gehienezko diferentziala (3.Eranskina) Bultzada Ekonomikorako Funtserako hautagarritasun-baldintzek ezartzen dute, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsak ez baititu eragiketaren epemugak estaltzen. Udal honek bete egiten ditu hautagarritasun-baldintzak, eta, beraz, arlo honetan diferentzial aplikagarria oinarrizko 50 puntukoa izango da.

Gainera, 10 urtetik gorako batez besteko bizitza duten zorpetze-eragiketen kasuan, aurreko puntuan ezarritako gehieneko diferentziala oinarrizko puntu bat gehitu ahal izango da urte gehigarri bakoitzeko, 15 puntu gehigarri gehienez ere. Eragiketa horri dagokionez, balio-bizitza 10,625 urtekoa izanik, oinarrizko puntu batean handitu beharko da.

Beraz, azaldutako irizpideen arabera, eragiketa horren GEHIENEZKO KOSTUA honako hau izango da:

Errefentzia tasa	Interesak	Eragiketaren bataz besteko bizitza	Gehienezko diferentziala 3 hileko Euriborraresn gainean (1 Eranskina)	Gehikuntza: Diferentziala eragiketa/entitate motaren arabera (3 Eranskina)	**Gehienezko kostua guztira**
Interes aldakorra	3 hiletik behin	127,5 hilabete	0,62%	0,51%	**Euribor 3 m + 1,13%**

GEHIENEZKO KOSTUA,GUZTIRA = 3 hileko Euriborra + 1,13%

4.4-Komisioak eta gastuak:

Udalak ordainduko dituen gastu bakarrak interesak izango dira, plegu honetan ezarritako moduan kalkulatuta, eta ezin izango da beste gasturik kobratu Udalari komisio, artekaritza, funtsak lortzeko gastu, tasa edo komisioengatik (azterketakoak, irekitzekoak, mantentzekoak, administraziokoak, postakoak, erabilgarritasunik ezekoak, amortizazio aurreratukoak edo beste edozein motatakoak).

4.5- Berandutze-interesak

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Udalak ez balitu kontratuan ezarritako ordainketa-betebeharrak beteko, agiri honetan ezarritakoaren arabera, arrazoia edozein dela ere, eta ordaintzeko errekerimendurik egin behar izan gabe, erakunde mailegu-emaileari kalte-ordainaren interesa ordaindu beharko lioke. ordainketan izandako berandutzeagatik.

Interes-tasa eskaintzan ezarriko da, eta ezingo du gainditu eragiketaren interes-tasa gehi urteko % 2ko errekargua, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duen Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

Berandutzako interes-tasa interes- eta/edo amortizazio-kuota mugaeguneratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da horien zenbatekoen gainean; egunero sortuko da, eta mugaeguneratutako hilabeteen arabera likidatuko da, edo berandutza-kuotaren amaieran. Finantza-erakundeak ezartzen ez badu, ulertuko da berandutzako interes-tasa bat datorrela maileguaren interes-tasarekin.

4.6.- Amortizazio-sistema eta Interesen kalkulua

Amortizazio-gabealdiaren lehen aldian, interes sinpleko formula honen bidez kalkulatuko dira interesak: I=c*r*t/36.500 edo 36.600 (bisurtea bada). Esanahia:

I: interesak
c: erabilitako eta amortizatu gabeko kapitala likidazio-aldiaren une bakoitzean
r: kontratatutako interes-tasa
t: dagokion likidazio-aldian igarotako egunak

Kapitala amortizatzeko bigarren aldian, likidazio-aldi bakoitzean, KUOTAK kapitalaren eta interesen batura izango dira, honela zehaztuta:

- Kapitala: kapitala modu linealean edo konstantean amortizatuko da, aldi bakoitzean zenbateko bera itzuliz. Lehenengo ordainketa amortizazio-gabealdia amaitu eta 3 hilabetera egingo da, eta gainerakoak hurrengo hiruhilekoetako egun berean.

  Hori guztia, Udalak zati baten amortizazio aurreratuaren ahalmena (4.7. klausula) erabiltzeari kalterik egin gabe. Kasu horretan, berriz kalkulatuko da ordainketa kopurua eta/edo zenbatekoa, erabilitako kapitala linealki edo modu konstantean amortizatu dadin geratzen den epean.

- Interesak: interesak amortizazio-gabealdiaren lehen aldian bezala kalkulatuko dira.

4.7.- Amortizazio aurreratua

2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren seigarren ataleko g)letran xedatutakoaren arabera, izenpetuko den kontratuak barne izango du klausula bat non berariaz xedatzen eta aitortzen den aldez aurretik amortizatzeko aukera, edozein momentutan, Udalak hala eskatzen badu, ordaintzeke dagoen kapital osorako edo zati baterako.

Klausula horretan jasota utziko da ezen kasu horietan ez dela inolako hauste-kosturik edo komisiorik kobratuko amortizazio aurreratuaren ondorioz, ordaintzeke dagoen kapital osorako nahiz zati baterako bada ere.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Horretarako, Udalak mailegu-emaileari jakinarazi beharko dio ordaintzeke duen kapitalaren amortizazio aurreratua, osoa edo partziala, egin nahi duen amortizazio-data baino 10 egun baliodun lehenago gutxienez, alkateak, kontu-hartzaileak eta diruzainak sinatutako idazki baten bidez.

Amortizazio aurreratu partzialaren kasuan, amortizazio-koadroa aldatu egingo da Udalaren aukeraren arabera, dela hiru hilean behingo amortizazio-kuotak murriztu eta ezarritako epeari eutsiz, dela iraupena murriztu eta (amortizazio-epea murriztuz) hasieran aurreikusitako amortizazio-kuotek bere horretan jarraituz, salbu eta – hala badagokio – amortizazio-egutegi berriaren ondoriozko azken kuota, zeinak dagokion zenbatekora egokituko baita eragiketaren saldo bizia osatzeko.

5. BERMEAK

Kontratazioaren izaera dela-eta, lizitazioan parte hartzen dutenei ez zaie behin-behineko edo behin betiko bermerik eskatuko.

Eragiketa honetatik eratorritako obligazioen berme gisa, eta Espainiako Konstituzioaren 135.3 artikuluan eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 14. artikuluan ezarritako zor publikoaren ordainketaren erabateko lehentasunari kalterik egin gabe, Udalak erakunde mailegu-emaileari lagako dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean duen kreditu-eskubidea (kontratua indarrean dagoen ekitaldietan Udal Finantzaketarako Foru Funts gisa erakunde horretatik hiru hilean behin jaso behar dituen kopuruetatik eratorri da eskubide hori).

Ondorio horietarako, Udalak Udal Finantzaketarako Foru Funtseko partaidetzatik datozen diru-sarreren zenbatekoa mailegu-emailean irekitako kontu korronte batean helbideratuta eduki beharko du, kontratua sinatzen den unean, finantza-erakunde bakoitzak, formalizatutako mailegu honek barne, Udalak duen zorpetze osoarekiko duen portzentaian, harik eta eragiketa honetatik eratorritako mailegu-emailearekiko finantza-betebeharrak kitatzen diren arte.

6. KLAUSULA OSAGARRIAK

Entitate lizitatzaileek, beren proposamenekin batera, beste klausula osagarri batzuk ere aurkeztu ahal izango dituzte, baldintzen plegu hauen edukia eta zentzua urratu gabe eta interés publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoak izan gabe.

Erakunde lizitatzaileren batek egindako proposamenak aurrez ezarritakoa urratzen duela uste bada, klausula osagarri hori EZ DELA JARRI ulertuko da. Klausula osagarriak plegu hauetara egokitzen diren ala ez interpretatzeko ahalmena Kontratazio mahaiari dagokio, diruzainak txostena egin ondoren. Txosten hori ahozkoa izan daiteke.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Kontratua adjudikatu ondoren, hautatutako entitateak proposatutako klausula osagarriak formalizatuko den kontratuaren parte izango dira.

7. LIZITATZAILEEN BALDINTZAK

7.1- SPKLren 71. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako zirkunstantzietako batean ere ez egotea.

7.2- Indarreko legeriak eskatzen dituen baldintza orokorrez gain, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak baimendutako bankuak eta aurrezki-entitateak izatea, eta Espainiako Bankuaren kreditu-erakundeen erregistroan inskribatua egotea.

7.3- Proposamenak aurkezteak esan nahi du erakunde lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintzen plegu hauetako klausulak, eta Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena egiten duela, erantzukizunpeko adierazpen hori botere nahikoa duen pertsonak sinatutako dokumentu espezifiko batean formalizatzeari kalterik egin gabe.

8. ESKAINTZAK AURKEZTEKO ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA ETA PUBLIZITATEA:

Kontratua adjudikatzeko modua lehiaketa bidez izango da, eta prozeduran parte hartzeko berariazko gonbidapena egingo zaie udalerrian sukurtsala duten finantza-entitate guztiei. Hala ere, agiri hau kontratatzailearen profilean argitaratuko da, interesa duen beste edozein entitatek garaiz eta behar bezala parte hartzeko aukera izan dezan.

Mailegu-operazioa kontratatzeko deialdira eskaintzak aurkezteko, finantza-entitateek honelako kontratuak kontratatzeko baimena izan beharko dute.

Lizitazioaren iragarkian ezarritako epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dute eskaintza erakunde interesdunek, Eusko Jaurlaritzaren aplikazioaren bidez (http://www.contratacion.euskadi.eus web-orrian), eta, horretarako, A-DOKUMENTAZIOA eta B- ESKAINTZA izeneko eranskinetan jasotako ereduak erabiliko dituzte.

Eskaintzak ekitaldi publikoan irekiko dira, http://www.contratacion.euskadi.eus helbidean argitaratuko den iragarkian adierazitako egunean eta orduan.

***A artxiboa- Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentua**

Lizitatzailearen erantzukizunpeko deklarazioa, zeinetan adierazten baitu Espainiako Bankuaren Kreditu-Entitateen Erregistroan izena emandako finantza-entitatea dela eta Administrazioarekin kontratatzeko legezko baldintzak betetzen dituela, I. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

***B artxiboa -Eskaintza ekonomikoa**

Proposamena II. Eranskinean ageri den ereduan egin beharko da, eta finantza-entitatearen ahalordedunak (edo ahalordedunek) sinatuta egon beharko du. Baldintza hori ez betetzea akats zuzentezina izango da.

Dokumentazioa eta eskaintzak aurkezteko epea **7 egun naturalekoa** izango da, kontratatzailearen
profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, eta ez dira onartuko
Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak daudenean, eta eskaintza horren barruan aldaerarik edo hobekuntzarik onartzen ez denean.

9. KONTRATAZIO MAHAIA

Beharrezko txostenak egin ondoren, kontratazio-mahaia eskaintzak baloratzeko eskumena duen organo teknikoa izango da, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Prozedura honetarako, kontratazioko Mahaia osaera honekin eratuko da:

Presidentea:	Alkatea
Kideak:	Korporazioko idazkaria edo haren ordezkoa
	Udaleko kontu-hartzailea edo haren ordezkoa.
	Diruzaina
Idazkaria:	Kontratazio administrazio orokorreko teknikaria

10. ARTXIBOAK IREKITZEA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, kontratazio-mahaiak, egintza ez-publikoan, ireki eta kalifikatuko ditu lizitatzaileek garaiz eta behar bezala aurkeztutako administrazio-agiriak, A artxibo elektronikoan. Mahaiak ikusten baditu zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak aurkeztutako dokumentazioan, alderdi interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emango die zuzentzeko. Era berean, mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria edo argigarria aurkezteko, gehienez 3 egun naturaleko epean.

B artxiboa ekitaldi publikoan irekiko da udaletxean. Fitxategi horren irekiera-data kontratatzailearen profilean adieraziko da, jakin bezain laster.

Kontratazio Mahaiak, udaleko diruzainak txostena egin ondoren (ahoz egin ahal izango da irekiera-ekitaldian, eskaintzen baldintzek horretarako aukera ematen badute), esleipen-proposamena egingo du udalarentzat eskaintza onuragarriena egin duen erakundearen edo erakundeen alde, 11. klausulan zehaztutako esleipen-irizpideen arabera, eta aurkeztutako eskaintzen sailkapen ordenatua egingo du, Udalarentzat abantaila gehien dituztenetatik gutxien dituztenetara.

11 ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratua lehiaketa bidez adjudikatuko da. Eskaintzak baloratzeko eta onena edo onenak zein diren zehazteko, puntu honetan azaldutako adjudikazio-irizpideak bete beharko dira.

Eragiketa adjudikatzeko, baldintzak erabat betetzen ote diren hartuko da kontuan, eta ez dira

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

baldintza horietara egokitzen ez diren proposamenak aztertuko.

Eskaintzarik **onena edo onenen arteko konbinazioa** zehazteko, **ebaluatu beharreko aldagai bakarra hau izango da:**
3 hilabeterako Euriborra eta lizitatzaileak eskainitako diferentzialaren arteko konbinaziotik lortzen
den interes-tasa txikiena. Diferentzial horrek 4.3 atalean ezarritako % maximoa bete beharko du, 1. Eranskina eguneratzen duena, Ebazpena, 2025eko urriaren 6ko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena.

Kontratu honen helburua inbertsioak osorik finantzatzea denez, esleipen-prozesua esleitzeke geratuko da, bertan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaintza nahikorik ez badago.

Berdinketa gertatuz gero, **berdinketa hausteko irizpide hau** aplikatuko da:

1º.- Lizitatzaileek berandutze-intereserako aplikatzen duten errekargu txikiena. Errekargu horrek aipatutako irizpideak ere bete beharko ditu.

Berdinketak jarraitzen badu, Korporazioak zozketa bidez ebatziko du esleipena

12 ERAGIKETA ADJUDIKATZEA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari bidaliko dizkio dagokion balorazioa eta adjudikazio-proposamena, eskaintzak beheranzko hurrenkeran jarrita.

Esleipen-proposamenaren xede den lizitatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du, esleipena egin aurretik, eskatutako dokumentuak badituela eta baliozkoak direla:

- Ahalordedunaren edo ahaldunen ahalmen nahikoak egiaztatzen dituen ahalordetze-eskrituraren kopia.

- Kontratatzeko legezko debekurik ez dagoela dioen adierazpena.

- Kreditu-erakundearen inskripzioaren Espainiako Bankuaren egiaztagiria.

- Finantza-erakundeak Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin zorrik ez duela adierazten duen adierazpena, ahaldunak edo ahaldunek sinatua. Udalak ofizioz egiaztatuko ditu Udalarekiko zorrak.

Onarpen-erabakia erakunde esleipendunari jakinaraziko zaio, eta akordioa formalizatzeko data ezarriko da.
Kontratua alkateak eta erakunde esleipendunaren legezko ordezkariek sinatutako dokumentu baten bidez formalizatuko da, eta korporazioko idazkari nagusiak hartuko du parte fede-emaile publiko gisa. Udalari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kontratua ezarritako epean formalizatzen ez bada, erakunde esleipendunak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe, bere proposamenari uko egiten diola ulertuko da, eta Udalak esleipena egingo du ekonomikoki abantailatsuena den hurrengo proposamena egin duen erakundearen alde.

Kontratua sinatzeko unean, erakundearen ordezkariek egiaztatu beharko dute zer ahalorderekin jarduten duten.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

Kontratuari, eranskin gisa, aurreikusitako amortizazio-koadroa erantsiko zaio, bai eta klausula zehatzen agiri hauen ale bat ere, esleipendunak sinatuta. Kontratuaren zatitzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Esleipendunak kontratua eskritura publikoan formalizatzeko eskatu ahal izango du, eta sortzen diren gastuak bere kontura izango dira.

13. INFORMAZIOA ESLEIPEN PROZESUAN

Eskaintzak/proposamenak aurkezteko epean sor daitekeen edozein gorabeherarako, informazio-gune bat gaitu da Andoaingo Udalean:

Kontu-hartzailetza:
Myrian Lizaso
mlizaso@andoain.eus

Diruzaintza:
Miren Gorrotxategi
mgorrotxategi@andoain.eus

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintzen Agiri hau **Osoko Bilkurak** onartu duela 2025/10/30an egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

1. ERANSKINA

_____jaunak/andreak , IFZ_____ zenbakikoa eta egoitza_____udalerrikoa,_____ _____helbidean eta jakinarazpenetarako _____helbide elektronikoa duenak, IFZ_____zenbakikoa duen _____finantza-entitatearen ahalordedun gisa,

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

Sinatzaileak, bai eta hark ordezkatzen duen eta Espainiako Bankuaren Kreditu-Entitateen Erregistroan izena emanda dagoen finantza-entitateak ere, Administrazioarekin kontratatzeko legezko baldintzak betetzen dituztela. Eta konprometitzen da, baldin eta esleipena bere alde egiten bada, kontratazioko organoaren aurrean egiaztatzera agiri honetan eskatzen diren dokumnetuak badauzkala eta baliozkoak direla, bai halaber dokumentu horiek edozein momentutan aurkeztera, Udalak hala eskatzen badu.

Horrenbestez, hau erantzukizunpeko adierazpena da, Andoaingo Udaleko alkate jaunaren aurrean emana, eta haren zuzentasun ezak edo faltsutasunak eragin ditzakeen kalteen erantzukizuna bere gain hartuko du.

……..(e)n, ……..(e)ko ……ren…….(e)(a)n

Sinatuta
IFZ

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

2. ERANSKINA

Andoaingo Udala

DIRUZAINTZA

KODEA: 2025AKN20015

PROPOSAMEN EREDUA

_____ jaunak/andreak, IFZ _____ zenbakikoa eta egoitza_____udalerrikoa, _____helbidean eta jakinarazpenetarako _____helbide elektronikoa dituenak, IFZ_____zenbakikoa duen _____finantza-entitatearen ahalordedun gisa, Andoaingo Udalarekin egingo den **17.749.198,70 euroko** MAILEGU-OPERAZIOARen kontratazioa arautzen duten **baldintzak ezagututa eta erabat onartuta**, adierazten du:

Lehenik.- Ez sinatzaileak eta ez hark ordezkatzen duen entitateak ere ez dutela kontratatzeko inolako debekurik Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta indarrean dauden xedapenetatik eratorritako obligazio fiskalak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituztela.

Bigarrenik.- Espresuki onartzen duela kontratazio hau arautzen duen klausulen agiria, bere osotasunean.

Hirugarrenik.- Ordezkatzen duen entitatearen izenean eskaintza ekonomiko hau egiten duela:

OPERAZIOAREN EZAUGARRIAK:

***Zenbatekoa eta eskainitako Marjina** pleguan ezarritako 3 hilabeteko Euriborraren gainetik eskaintzen den marjina:

Zenbatekoa (eurtan)	**Marjina (% 2 hamarrekotan)**
8.874.599,35	
17.749.198,70	

* **Epea guztira, gabealdia barne:** 18 urte
* **Gabealdiko epea: 3** urte
* **Amortizazio-sistema:** lineala (amortizazio konstanteko kuotak)
* **Zorpeko saldoen kasuetarako interes-tasa :** *(operazioaren interes-tasaren gaineko **diferentziala**, zehienez urteko %2)* _____

……..(e)n, ….(e)ko……..ren…….(e)(a)n

Sinatua:

IFZ

ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908

EKS | CSV: ESKU6d7713ae-622e-41a0-9366-18a9800fc908
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910